BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2967

EBAZPENA, 2013ko irailaren 18koa, Ingurumeneko sailburuordearena. Honen bidez, EAEn lurraldea zaintzeko akordioetan jasotako natura-ondarea kontserbatzeko jarduerak finantzatzeko 2013ko laguntzak ematea ebazten da.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2013ko ekainaren 5eko Aginduaren bidez (2013ko ekainaren 18ko EHAA, 116. zk.), lurraldea zaintzeko akordioetan jasota dauden natura-ondarea zaintzeko jarduerak finantzatzeko laguntzetarako deialdia egin zen.

2013ko ekainaren 5eko Agindu horretan ezartzen denaren arabera, eta berariaz eratu den balioespen-epaimahaiak egindako txostena aztertu ondoren, hauxe

EBAZTEN DUT:

1.– Diru-laguntza hauek ematea: I. eranskina.

2.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak 2013an egin beharko dira, eta, betiere, 2013ko abenduaren 31 baino lehen garatu eta bukatu behar dira.

Diru-laguntzaren ordainketa, 2013ko ekainaren 5eko Aginduaren 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak ebazpena eman ondoren.

3.– Diru-laguntza hauek baztertzea: II. eranskina.

Baztertuak izateko arrazoien azalpena honako hau izan da:

(1) Proiektuak ez du loturarik lurraldea zaintzeko akordioetan jasota dauden natura-ondarea kontserbatzeko jarduerekin.

(2) Ez daude erregistroetan legez eratuta eta jasota, gutxienez Agindua argitaratu zen eguna baino urtebete lehenagotik.

(3) Epez kanpo egin da eskaera.

(4) Aurkeztutako eskabideko akatsak ez dira zuzendu epe barruan:

(a) Ez dira zaintza erakundeak.

(b) Ez dute aurkeztu lurraldearen zaintza hitzarmena.

(5) Puntu gutxiegi lortu ditu proiektuak.

4.– Esleitutako diru-laguntzen zerrenda bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, denek jakin dezaten, diru-laguntzen deialdiaren aginduko 13.4 artikuluaren arabera.

5.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, betiere Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 18a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO.

I. ERANSKINA

Erakundea	Lurraldea	Proiektua	Puntuak	Jardueraren lekua	Akordioaren iraupena	Potentzialtasuna	Eskatutako diru-laguntza €	Diru-laguntza €
Asociación de promoción cultural «Salvagoro»	Araba	Cercado de simas y áreas en el altiplano de Sierra Salvada	82	35	15	32	19.407,43	19.407,43
Naturtzaindia Elkartea	Gipuzkoa	Actuaciones de mejora del conocimiento y sensibilización de los Hábitats y Especies de Intereses Comunitario en las parcelas custodiadas por la Asociación Naturtzaindia en el municipio de Alkiza incluidas en la ZEC Hernio-Gatzume	75	35	20	20	20.000,00	20.000,00
Lurgaia Fundazioa	Bizkaia	Restauración paisajística tras la explotación forestal: Eliminación de pistas de saca en Unda Muxika Bizkaia	65	30	20	15	8.957,83	8.957,83
Lurgaia Fundazioa	Bizkaia	Conservación y restauración de robledales y aliseda cantábrica en el barrio de Ergoien Amorebieta Bizkaia	61	20	20	21	19.976,80	19.976,80
SEO/Birdlife	Araba	Naturalización y mejora de charcas en Gaztelu/Castillo	58	20	10	28	19.975,50	19.975,50
Aranzadi Zientzi Elkartea	Gipuzkoa	Custodia del territorio agrícola para la conservación de anfibios	58	20	10	28	20.000,00	20.000,00
Aranzadi Zientzi Elkartea	Gipuzkoa	Ampliación del proyecto de custodia terrenos Gautegiz-Arteaga	57	35	7	15	20.000,00	20.000,00
Ekologistak Martxan	Araba	Plan de acción para la biodiversidad en los MUP de Alegria-Dulantzi 2013	50	20	10	20	19.445,00	19.445,00
SEO/Birdlife	Araba	Restauración del corredor etológico del río Zaya Fase II	50	20	10	20	19.976,70	16.776,70

Erakundea	Lurraldea	Proiektua	Puntuak	Jarduerarenlekua	Akordioaren Iraupena	Potentzialtasuna	Aurrekontua	Arrazoia
Ekologistak Martxan	Araba	Plan de acción para la biodiversidad faunística en el jardín botánico Santa Catalina	28	8	5	15	19.967,54	5
GADEN (Grupo Alavés para la Defensa y Estudio de la Naturaleza)	Araba	Custodia del territorio de la Reserva forestal del pinar de Dueñas para la protección y fomento de la biodiversidad actuaciones 2013	24	8	5	11	14.694,00	5
Barrikako Udala	Bizkaia	Inventario de especies (flora y fauna) y regeneración forestal del entorno de Barrikabaso - Muriola, Barrika-Bizkaia						(4)(a)

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2014ko uztailaren 2a, asteazkena
124. zk.